

# 2009/ programa

---

---

---

## ARTELEKU/ 2009ko PROGRAMA

Zer da Arteleku kulturaren egungo errealitatean eta zer eskaintzen digu?

Arteleku garaikidetasunaren foro bizia da, zentro dinamizatzailerik bat, nondik praktika artistiko-kultural esperimentalak bultzatzen diren, zabalik daudenak sortzaile orori eta sorkuntza gaitasuna eta ezagupen artistikoa zabaltzeko gogoan duen pertsona nahiz talde orori, nongoa den begiratu gabe.

Arteleku topaketa gune bat da. Bertan, artistek beste diziplina batzuetako artistekin izan ditzakete harremanak, eta, ondorioz, beraien begirada aberastu dezakete, ezagutza areagotu, eta ezusteko lankidetzak ere sor daitezke. Artelekun arriskua zilegi da, akatsak onartu egiten dira, eta prozesura bera izan daiteke azken xedea. Arteleku esperimentaziorako eta ikerketarako gunea da, eta libre da tailerretarako, dokumentuetarako, materialetarako, teknologia berrietarako eta abarretarako sarrera.

Sortu zenetik, praktika garaikideei emana izan da, eta helburu izan du, eta dauka, artistari baliabideak ematea proiektuak eta ideiak formalizatzeko, garatzeko eta gauzatzeko.

Lehen fasean, Artelekuk tailer eta mintegiak izan zituen ardatz, direla teorikoak, direla praktikoak, eta artistak gonbidatzen zituen beste batzuekin egin zezaten lan, edo topaketa teoriko zabalak antolatzen zituen non oinarri ziren partaidetza eta eztabaida; tailer eta topaketa horietatik sortu ziren, bertan landatutako hazietatik, egun nazioartean ezagunak diren zenbait artista eta kritiko. Halaber, bere ibilbidean, Artelekuk gizartearen eremu zail eta anitzari erantzun dio. Hori dela eta, azken urteetan, apustu egin du egungo arazo sozio-kulturalekin harreman zuzena duten proiektuen alde, eta indarra jarri du prestakuntza artistikoa zeharkako modu batean garatu dadin, non ikerketa, ekoizpena eta erakusketa erlazionatu egiten diren eta maila berean lantzen diren.

Zentzu honetan, halaber, Artelekuk honakoak sustatu ditu: espresibide berriak sartzea, eta teknologia digital berriak eta multimediarako eta ikus-entzunezko proiektuak ikertzea eta garatzea.

Premisa horietatik abiatuta, 2009ko programazioan ardatz kontzeptual hauek nabarmendu nahi ditugu: DIZIPLINAARTEKOA, ESPERIMENTAZIOA, INTERAKZIOA

eta PARTAIDETZA. Gainera, jarduketetan aintzat hartzen ditugu formazio teorikoa nahiz praktikoa, eta indar egiten dugu harremana izan dezaten artera ekartzen diren teknologia berriek eta ikusizko artearen ezagutza tradizionalak.

Zentzu honetan, oso eremu desberdinetako sortzaileak eta ikerlariak elkarrekin aritzeko moduko akzioak burutuko dira, hartara ingeniariekin, fisikoekin edo matematikariekin lan egin dezaten soinuaren, irudiaren, pinturaren edo beste edozein praktikaren bidez lan egiten duten artistek.

Artistek, egun, arteari aplikatzeko moduko sorkuntza metodo berriak behar dituzte, eta hori da Artelekuk ezartzen duen helburua, betiere ahaztu gabe hausnarketarako eta eztabaidarako gune bat ere eman behar duela, egunerokoaren gaineko kontu oinarritzoei aurre egiteko, eta betiere jabetuta badirela zenbait artista esparru kontzeptualagotan lan egiten dutenak edo arte plastikoetan jarraitzen dutenak.

Diziplinaarteko lanaren aroan gaude, hibridoak diren artelanen garaian, eta Arteleku bezalako zentro batek lekua egin behar die esperientzia berriei ez ezik tradizionalei ere, hartara elkarbizitza horretatik proiektu berriak sor daitezzen.

“Praktika artistiko garaikideak” izenpean, zenbait akzio sartzen ditugu, eta horiek osatzen dute Arteleku 2009 programa, sei apartatuetan sailkatuta:

1. Praktika kontzeptual eta performatiboak
2. Ikus-entzunezko praktikak
3. Praktika fotografikoak
4. Praktika sozialak
5. Artea, zientzia eta teknologia
6. Grafikoaren tailerrak

---

---

# PRAKTIKA ARTISTIKO GARAIKIDEAK

---

---

---

---

## 1. PRAKTIKA KONTZEPTUAL ETA PERFORMATIBOAK

### Performancea gora eta performancea behera

Koordinazioa: **Esther Ferrer**

Gonbidatuak: **Nieves Correa, Bartolomé Ferrando, Valentín Torrens, Carlos Tejo, Margarita de Aizputu, Rocío de la Villa, Pilar Albarracín, Maialen Lujanbio, Dora García.**

**Ekainaren 8tik 12ra.** Esther Ferrerrek emandako tailerra

**Ekainaren 12tik 19ra.** Dora Garcíaek emandako tailerra

Hirurogeiko hamarkadan inork ez zuen planteatzen "zer" zen performancea, hitza ez zelako erabiltzen egun erabiltzen den zentzuan. Ez zen sailkatzeko edo definitzeko premia sentitzen, praktikatu egiten zen. Denboraren joanaz, eta arte alorrean iraun egin baitu, adituek teoriak, definizioak eta ondorioak ezarri zituzten. Hala, performancea azkenik sartu egin da Arte Ederreko Eskola eta Unibertsitateetako programetan.

Egoera horren aurrean ugariak dira geure buruari egin diezazkiogun galderak, besteak beste ba ote dagoen performancearen pedagogia espezifikorik edo irakatsi egin daitekeen eta behar den, eta horren arriskuak, alde onak eta gaitzak aztertu.

Bestalde, performanceaz hitz egitean berehala sortzen da generoaren auzia. Sarri askotan eztabaidatu izan da feminismoak artean oro har eta ekintzaren munduan bereziki izan zuen eraginaz; ez da ahaztu behar emakume aitzindari asko daudela esparru horretan. Horregatik da interesgarria "feminismoak" ekintzaren munduan izandako eragina, iraganeko eta gaur egungo proposamen jakin batzuen erradikaltasuna eta arte horren bizitasuna aztertzea.

# **Demokrazien diktadurak. Kontzeptua adibide**

Koordinazioa: **Isidoro Valcarcel-Medina**

Gonbidatuak: **Concha Jerez**

## **Uztailaren 6tik 17ra**

Diktadura frankistako arte praktika kontzeptual eta esperimentalen aurretiazko azterketatik abiatuta, gogoetak planteatzea eta egungo proiektuak garatzea dira tailer honen helburuak.

Demokraziek eredugarri moduan aurkeztu ohi diren kontzeptuak planteatzen dituzte, baina ez dute kontzeptu horien adibideak emateko ohiturarik, joera izaten da areago haien ideien jardura sinplea esan geniezaiokeenetik gelditu gabe igarotzea. Bestela esanda, demokrazietan gauza gutxi dira demokratikoak. Arte demokratikoak, halako izendapena erabili baldin badaiteke, egunero ikusten dugun bezala, ez du desberdintasun handirik arte diktatorialarekin, artearen funts adostuan errotuagoa bera. Sormena adibideez adieraziko balitz, edozein ekintza izango litzateke arduratsua...; eta ikusten dugu ez dela halakorik gertatzen. Abian jartzen dugun jardueraren helburua ideia kreatiboen babesaren adibideak eskaintzea da, jada erabakitako ideiak aurkeztea baino gehiago.

Tailer hau Württembergischer Kunstverein Stuttgart eta Budapesteko C3rekiko elkarlan baten barruan garatzen da.

## **Mugatxoan**

Koordinazioa: **Blanca Calvo eta Ion Munduate**

Gonbidatuak: **Marten Spangberg, Tor Lindstrad**

### **Irailaren 1etik 20era**

Mugatxoan tarteko espazio ideiatik abiatuta eraikitzen da, kodigoen zirkulaziorako lekua den aldetik, jasaten dituen mugimendu eta lekualdatze etengabeek birdefinitua.

Mugatxoanek Marten Spangberg eta Tor Lindstraden tailerra proposatzen du aurten, bi fasetan garatuko dena: bata aurten eta bigarren fase bat 2010eko programazioan, zeinetan gonbidatuek beren aldetik jarduera publikoen programa bat proposatuko baitute.

Mugatxoan proiektuak hamargarren urteurrena betetzen du bere lanaren atzera begira dokumental bat aurkeztuz. Bildutako dokumentala ez ezik Laboral-eko eta Serralves-eko programen hondarra ere eskainiko da, baita 1998z geroztik tailer bat eman duten guztiei egindako (audioan, irudirik gabe) elkarrizketak ere.

Mugatxoan proiektua Laboral Escena eta Fundação de Serralvesekin elkarlanean garatzen da.

---

## 2. IKUS-ENTZUNEZKO PRAKTIKAK

### **Irudia Mugimenduan Laborategia**

Koordinazioa: **Isabel Herguera**

Gonbidatuak: **Phil Mulloy, Vera Neubauer, Coke Riobóo**

Animazioaren diziplina sorkuntzarako espazio bai praktiko bai teoriko bat izango den esparru bat sortzea da Artelekuko Irudia Mugimenduan Laborategiaren helburua. Bertan garatzen diren lanak ikus-entzunezko formatu tradizionalei lotzen zaizkie eta animazioa abiapuntua izanik emaitza beste arte diziplina batean gauzatzen diren proposamenak dira. Programatutako jarduerak, urtean zehar garatutakoak, artistek emandako tailerrak eta Artelekun Animac jaialdian zehar proiektatzen diren film aukera bat dira.

### **Animac – Catalunyaoko Animazio Zinemaren Nazioarteko Erakusketa**

**Martxoaren 3tik 6ra**

**Animacek** Phil Mulloy eta Vera Neubauer zuzendari britainiarren lana ezagutzeko aukera eskaintzen du aurten. Era berean, animazio zinema independentearen egungo panorama erakusten duten nazioarteko lanen aukera onena eskaintzen duten emanaldiak egitea pentsatu da. Bestalde, animazio tailer bat eskaintzen da, eta hurrei zuzendutako film laburren emanaldi bat, Tabakalerarekin elkarlanean.

### **Fotogramak eta krakoak**

Koordinazioa: **Coke Riobóo**

**Martxoaren 3tik 6ra**

Tailer honetan mugimendua aztertzen da, musika egituratik abiatuta. Bertan aztertzen dira solfeo erritmikoaren oinarriko kontzeptuak eta haien aplikazioa animaziora. Ikasleak parte hartzen du soinu banda konposatzen bere ahotsa eta eguneroko objektuak instrumentu moduan erabilia. Ondoren haren ikusizko baliokidea lantzen da stop-motion teknikaren bitartez.

## **Fuel for Animation**

Koordinazioa: **Phil Mulloy & Vera Neubauer**

**Ekainaren 20tik uztailaren 20ra**

Bere teknika edo sorkuntza prozesua dela-eta ohiko ikus-entzunezko produkzio baten forma tradizionalari jarraitzen ez dion animazio lan bat aztertu eta egiteko modu desberdinak erakustea da tailer honen helburua. Vera Neubauer eta Phil Mulloyren lana artista plastikoaren askatasun kreatiboaren eta hizkuntza zinematografikoaren ofizioaren zorrotasunaren emaitza da. Animazio ez tradizionalaren barruko zenbait sorkuntza teknika eta prozesutan zentratzen da tailerra.



## **Audiolab**

Koordinazioa: **Xabier Erkizia**

Gonbidatuak: **Oier Iruretagoiena, Jean-Luc Guionnet, Miguel A. García, José Iges, Alessandro Bosetti, Mattin, Txesus Garate, Miren Jaio, Oier Etxeberria...**

## **Soinumapa: Euskal Herriko soinu mapa**

Koordinazioa: **Xabier Erkizia eta Oier Iruretagoiena**

**Maiatzaren 7 eta 8**

Bere laugarren urtean *SoinuMapa* sare proiektua errealitatea da jadanik. Soinu artxibo hau 300 dokumentutik hurbil dago eta 2009an bere katalogoa asko handituko da (ia bikoitzera) beste erakunde eta soinu bilduma pribatu zein publikoekin hitzartutako itun eta hitzarmenei esker. Proiektua aurkeztearekin batera espedizioak egingo dira interesgarriak izan daitezkeen sarbide zaileko lekuak mapeatzeko, etengabe haziz doan soinu artxibo bat osatzeko asmoz.

## **Inprobisatzea? Medioa praktikatu eta ibiliz**

Koordinazioa: **Jean-Luc Guionnet**

**Uztaileko 20tik 24ra**

Tailer honek arreta eskaini nahi dio esperimentazioari eta musikaren eta inprobisazio askeari dagozkion termino guztiak (arriskua, erabakia, ulermena, beldurra, espazioa, entzumena...) barne hartzen dituen "ekosistemaren" arteko erlazio anitzen iruzkintzeari, praktika inprobisatzaileen izaeran sakontzeko helburuz.

## **Netlabels**

Koordinazioa: **Miguel A. García**

**Abuztuko 17tik 21era**

Hamarkada batez existitu ondoren, *netlabel* edo sareko diskoetxeen fenomenoak errealitate arazotsu bezain onuragarri bati egin behar dio aurre. *Netlabelek* musika industria gisa ezagutzen dugunarekiko izaera independentea gordetzen dute oraino, baina ez dute funtzionatzen alternatiba argi eta sendo moduan sektore diskografikoaren krisialdi nabarmenaren aurrean. Jardunaldi hauen nahia da zenbait *netlabel* proiektu bildu eta aurkeztea plataforma horiek garatutako esperientzien eta aurre egin behar dieten erronka berrien inguruan ikuspegi orokor bat izateko.

## **No Dial: Irrati artea Internet aroan**

Koordinazioa: **Miguel Alvarez, Xabier Erkizia, Oier Iruretagoiena**

Gonbidatuak: **José Iges, Alessandro Bosetti.**

**Abuztuaren 24tik 28ra**

Tailer honen bitartez atentzio berezia hartu nahi zaio XX. mendean zehar gizartean soinu medioaren bilakaera markatu duten komunikabideetako bati, aurre egin behar dion errealitatean eta etorkizun digitalean nahitaez jasaten ari eta jasango baititu aldaketa zorrotzak bere formari eta metodoari dagokienez. Arte radiofonikotik abiatuta, medioaren aukera esploratzaileen adibidea den aldetik, eta irratiarekin harreman estua duen jarduera lantzen duten pertsonen hitzaldien bitartez, mintegi honen helburua da arazo horiek identifikatu eta aztertzea komunikabide honi datorkion etorkizunaren diagnostiko bat egitearren. Proiektu hau Radio Clásica-RNEko Ars Sonora-rekin lankidetzan egina da.

## **Zarata eta kapitalismoa**

Koordinazioa: **Mattin**

**Urria hilean barrena**

Jardunaldi hauek Audiolaben azken bi urteotan garatzen aritu den izen bereko argitalpen baten aurkezpen publikoarekin batera gertatuko da. Gertakari honen xedea da liburuan argitaratutako testu batzuk hitzaldi moduan aurkeztea, hartan azaldutako teoriak eta hipotesiak zabaldu eta garatzeko eztabaida publiko moduan.

## **Audio Disekzionatua**

Koordinazioa: **Txesus Garate**

**Azaroaren 9tik 13ra**

*Audio Disekzionatua* soinua sortu eta ekoizteko erabiltzen diren tresna digitaletako batzuk aztertzen diren espazio bat da, helburua izanik parte-hartzaileek kalitatezko audioa ekoizteko funtsezko kontzeptuak beregana ditzaten. Tailerra medioaren edo/eta baliabide informatikoen programaziorako funtsezko kontzeptuen nolabaiteko ezagutza duten eta soinu fenomenoan interesatuta dauden pertsonen zuzenduta dago, zehazkiago ordenagailuek soinuak egiteko tresnak diren aldetik, xede musikalararekin edo ez, eskaintzen dituzten aukerak bilatzen dituzten guztiei.

## **Stock13**

Koordinazioa: **Miren Jaio, Oier Etxeberria, Xabier Erkizia**

Jardunaldiak urtean zehar

Nahikoak dira hiru minutu t'erdi unibertso bat birsortzeko. Hiru minutu t'erdi irauten du abesti estandar batek. Abestiak, zentzu unitate txiki indartsu horrek, denbora, kultura eta hizkuntza alorreko langetatik harago joateko ezaugarri bitxia du. Mila bider entzuna eta denak batera kantatua, oroimen banako eta kolektiboaren parte ordezkazina da. *Stock13k* hainbat soinu banda pertsonal ezagutzera gonbidatzen du. Norberaren gustuaren arabera, musikadun hitzaldia edo entzunaldi iruzkindua, aukeratutako formatuak abestiak ditu hari gidari.

---

### 3. PRAKTIKA FOTOGRAFIKOAK

## Subjektuaren estrategiak gaur egungo argazkigintzan

Koordinazioa: **Ramón Esparza**

**Urriaren 7tik 9ra**

Mintegi honek subjektuaren gaia jorratu nahi du honako ikuspuntu hauetatik:

- Subjektua, irudi fotografikoaren eskema narratiboaren eratzailer.
- Niaren eraikuntza argazkigintzan: potreta fotografikoa eta gizabanakoaren sorrera.
- Niaren teknologiak. Foucaultengandik medio digitalera.

Lehen apartatuak aztertuko du irudi fotografikoak, eredu enuntziatzailea den aldetik, nola *eraikitzen* duen bere behatzailea eta eraikuntza horrek nola erabakitzen dituen irudiaren behatzailearen figura desberdinak.

Niaren eraikuntzak argazkigintzan potreta fotografikoa aztertuko du, bai haren bilakaera ere, psikoanalisiaren eta gizabanakoaren gaineko antropologiaren teorien aurrez aurre jarrita.

Hirugarren apartatua Michel Foucaultek bere bizitza profesionalaren azken etapan landutako "Niaren teknologiak" kontzeptutik abiatzen da. Foucaultek gizabanakoaren ahalmenen garapena planteatzen du, subjektuaren eraikuntza artelan gisa. Niaren teknologia horien errealitate soziala, ordea, oso bestelakoa da. Teknologia digitalak eta medio berriek niaren halako erakuskeria bat bultzatu dute, gizabanakoaren huste hutsa besterik ez dena.

---

## 4. PRAKTIKA SOZIALAK

### Urban Market Place for Ideas

Koordinazioa: **Cecilia Andersson**

**Urriaren 22 – 24, azaroaren 26 – 28, abenduaren 19 – 21**

Tailer honek testuinguru aproposa sortu nahi du gogoeta, proposamenak eta eztabaidak bultzatzeko hiriaren gainean, gai moduan hartuta. Cecilia Andersonen proposatzen du "artearen egitea politikan pentsatu eta erabilgarri izaten saiatzen garen bitartean", herritarren parte-hartzeko estrategiak planteatuz hirigintza alorreko eztabaidetan.

Jarduera hau hiru alditan garatuko da, hilean behin, denbora emateko online ikerketa eta eztabaidari saio presentzialen artean.

### Zaborrean lardaskan

Koordinazioa: **Seve Penelas**

**Urria - azaroa**

Koldo Mitxelena Kulturunean 2009ko urriaren 27tik 2010eko urtarrilaren 23a bitartean aurkeztuko den izenburu bereko erakusketaren osagarri izateko asmoz, denok ukitzen gaituzten kontuen inguruko jarduera sorta bat proposatzen da, hala nola, hondakinen tratamendua, birziklatze praktikak, jasangarritasun politikak eta, laburbilduz, oraingo eta etorkizuneko pentsamendua, hiri testuinguruetan nahiz natur inguruetan, klima aldaketa delakoaren eta garatzen ari garen gizarte motaren erronken aurrean.

Tailerraren helburua da gogoeta eta eztabaida sortzea erakusketak ezartzen dituen norabide bikoitzen inguruan, ideia hauen artean:

ARTEA bikaintasun eta kalitate balioa den aldetik < > ARTEA alferrikako soberakinaren balioa den aldetik.

HONDAKINAK oroimen hondarrak diren aldetik < > HONDAKINAK alferrikako uzkinak diren aldetik

BIRZIKLATZEA zentzuzko berrerabilera den aldetik < > BIRZIKLATZEA aprobetxamendu engainagarria den aldetik.

ARTEA HONDAKINEN BIRZIKLATZE gisa < > HONDAKINEN BIRZIKLATZEA ARTE gisa.

### **Errore Kodea**

Koordinazioa: **Iñaki Gracenea**

Gonbidatua: **Dario Urzay**

**Apirilaren 14tik maiatzaren 29ra**

Teknika zehatz batean zentratutako tailer bat proposatzeak badirudi mugatu egiten duela arte praktika, baina pentsa dezagun teknikan ez betebeharrak edo menderatu beharreko zerbait moduan, esperimentazio eta mestizajerako leku moduan baizik. Ongi ulertuta irudiak eraikitzeak edozein prozesu teknika gaitzen duela, bere baitan informazio jakin bat bideratzen duen bidea den aldetik. Espezifikotasun hori aztertuko dugu; teknikak zein modutan hornitzen dizkigun datu eta modu propioak, hasiera batean serigrafiatik garatzeko, praktika zabal eta aukera hibridoak dituen teknika gisa hartuta, aurkeztutako proiektuen mendean jarri.

Tailerrak serigrafiaren alderdi ez hain konbentzionala azpimarratu nahi du, eta haren aukerak zabaldu, eztabaidatu nola zabal daitezkeen estrategiak eta nola sortu metamorfosi norabideetan eramango gaituzten egoerak, gure lan prozesua indartu eta garatzen dituzten beste teknika eta beste lengoaietik elkartruke adierazkor eta formal etengabe bat finkatzea bilatuz.

### **Litografia tailerra**

Koordinazioa: **Don Herbert**

**Uztailaren 1etik 31ra**

**Abuztuaren 3tik 28ra**

Artelekuk, bere existentziaren urteetan, urtero-urtero antolatu izan ditu artistentzako hainbat tailer. Tailer horiek teknika litografikoaren sarrera gisako bat dira, bertan artistak estanzazio prozesua egiten du hasieratik: papera prestatzea, estudioa garbitu eta muntatzea, matrizearen tratamendu kimikoa, eta estanzazioa, Don Herbert maisu estanzatzailearen zuzendaritza eta ikuskatzearen pean.

### **Post Computational Instruments**

Koordinazioa: **Servando Barreiro eta David Cuartielles**

**Otsailaren 25etik martxoaren 6ra**

Tailer teoriko-praktiko hau soinuan, musikan, ingeniari-tza elektronikoa eta instalazio elkarreragileetan interesa duten artista eta sortzaileei bideratuta dago. Tailerrak zenbait metodo eta lanabes erakutsi nahi ditu soinu instalazioak edo musika instrumentuak sortzeko, alde batera utziz ordenagailua tresna zentral gisa eta aukera kreatibo berriak irekitzeko hainbat gailu elektronikoen interfaze gisa erabiliz Programan sartzen dira Minia edo Arduino bezalako plataformak fisikoaren aurkezpenak haien garatzaileen eskutik, baita hainbat eta hainbat soinu aplikaziotara bideratutako oinarriko ariketa praktikoak ere.

### **Y+Y+Y [Artea eta Konplexutasunaren zientziak]**

Koordinazioa: **Joaquín Ivars**

**Ekainaren 29tik uztailaren 4ra**

Konplexutasunaren zientzien alorrean aztertzen diren ideiak aurkeztea eta arte diskurtsoekin dituzten paralelismoak erakustea da mintegi-tailer honen helburua.

Konplexutasunaren zientziak hainbat zientzian zeharka (biologia, fisika, neurozientzia, astrofisika...) agertzen diren faktore komunen azterketan dihardute, eta honako kontzeptu hauek aztertzen: ausazkotasuna, kaosaren teoria, sistemen teoria, baita emergentzia eta buru-antolakuntza bezalako ezaugarriak ere. Azterketa eredu hauek soziologiari, ekonomiari, psikologiari, politikari... aplikatu dakizkioke, baita artelanak sortzeari ere.

## **INTERACTIVOS 09 ARTELEKU.**

### **Auzo kodea salgune handietarako**

Koordinazioa: **David Cuartielles, Moisés Mañas**

**Uztailaren 16tik 31ra**

Tailer hau espazio elkarreragileak sortzera dago bideratuta interfaze fisiko edo zentzumenezkoen bitartez, espazio arkitektonikoa espazio sentibera, erreaktibo, adimentsu gisa hartuta. Kontzeptualizazio kreatiboa, kontestualizazio artistikoa eta proiektu arkitektoniko elkarreragileen garapena aztertzen du igarotze espazio hibridoetan.

Tailer hau Medialab-Prado-n garatutako "Interactivos?" plataformarekin elkarlanean egingo da.

## **Information Kinetics**

Koordinazioa: **BESTIARIO Kolektiboa [Santiago Ortiz, Andrés Ortiz eta José Aguirre]**

Gonbidatua: **Manuel Lima**

**Abuztuaren 3tik 14ra**

Tailer honen helburua da ikuspegi zientifikoa arte adierazpenarekin elkartzea datuen bistaratzearen bidez. Egungo gizartean informazioz gainezka bizi gara, baina azterketa esanguratsuak edo gogoeta aipagarriak lortzea bereziki zaila izan daiteke. Informazioa antolatzea, ikuspegi desberdinak ekartzea, azterketa erraztea edo estalita dagoena ikusgai jartzea gogoeta aipagarriak katalizatzeke xedez artistak sarritan egin beharreko zereginak dira, batzuetan ikertzaile pribatuaren jarreraz, beste batzuetan intuizioa arma bakarra duela. Horrenbestez, egokia dirudi artistari bere ikerketak beste ikuspegi batzuetatik egitea ahalbidetuko dioten tresna kontzeptual eta teknikoak eskaintzea.



## **Artea, Sareak eta 2.0 Ekosistemak**

Koordinazioa: **Pau Alsina**

**Urriaren 1etik 31ra**

Online mintegi honetan sareen funtzioa, haien lan dinamikak eta 2.0 ekosistemarekiko haien loturak aztertzen ditugu arte praktikak ekoiztearen testuinguruan. Aztertu egiten ditugu praktika horiek, baita Web 2.0 delakoaren egitura eta dinamikak ere, ikuspuntu desberdinetatik: filosofikoak, sozialak, politikoak, biologikoak, fisikoak, ekonomikoak eta ekosistemikoak.

Lan metodologiak saio mota desberdinak hartzen ditu barne: proposatutako testuen azterketa partekatua, ideien gaineko eztabaida foro edo "chat"en bidez, parte-hartzaileek egindako ikerketa eta ideia komunak argitzea. Online mintegia amaitzean pentsatu da agian bigarren parte presentzial bat egin litekeela, bertan proiektuen garapena planteatzeko.

## **My Map is Not your Map**

Koordinazioa: **Jose Luis Pajares**

Gonbidatuak: **Christian Nold, Mscape, Proboscis**

**Irailaren 21etik 25era**

Mintegi honen garapenean kartografia aktiboekin eta lurraldearekin lan egiten duten proiektuak aurkeztuko dira, geokopakena (GPS) bezalako teknologiek arte proiektuak garatzeko dituzten aukerak erakutsiz.

## **Disonancias**

Koordinazioa: **Xabide**

**Ekainaren 15a**

Disonancias enpresa, ikerketa zentro edo erakunde publikoen eta artisten arteko bitartekaritza eta sustapen plataforma bat da, berrikuntza bultzatzeko alderdi guztietan, eta gizarteari ingurune kreatiboak garatzeak duen garrantzia jakinarazteko.

**[www.disonancias.com](http://www.disonancias.com)**

## **MID\_E. Nazioarteko Erakusketa Euskaditik**

Koordinazioa: **YOX Kolektiboa [Yon Martínez, Xabi Martínez]**

Erakusketa hau saiatzen da artearen mugan dauden ekimenei eta hiri kulturaren adierazpenei ikusgaitasuna ematen. Gaur egungo sorkuntzaren molde berriek begiratzen dieten bat egite hori adierazten duten alorretako hirutan zentratzen da erakusketa: Moda Independentea, Irudi Elektronikoa eta Musika Sorkuntza.

**[www.mid-e.com](http://www.mid-e.com)**

## **ERTZ JAIALDIA**

Koordinazioa: **Xabier Erkizia**

**Irailaren 14tik 17ra**

ERTZ arte gunea sortzaile talde bat da, Bera herrian sortua arte garaikidearen zenbait alderdi lantzeko helburuz, bereziki izaera esperimentaleko proposamenak. Aurten, bere hamargarren urteurrena dela-eta, atzera begirako dokumental bat aurkeztuko du, eta artista gonbidatuen tailerrak eta kontzertuak ere izango dira.

**[www.ertza.net](http://www.ertza.net)**

Liburutegiak eta dokumentazio guneak edukiak hedatzeko espazio espezializatu bilakatu dira, eta beren baliabideak eta ezagutza erabiltzailearenganako zerbitzua ulertzeko era berri batera egokitzen ari dira. Eta horri dagokionez Artelekuko gaur egungo arte eta kulturara bideratutako dokumentazio guneak eskaintzen duen zerbitzuak elkartu egiten ditu dokumentuen (analogikoak eta digitalak) prozesatzea, haien kontserbazio, hedapen eta komunikazioa (bere argitalpen proiektu analogiko eta digitalen bidez), bere dokumentazio alorreko baliabideak kolektibitatearen zerbitzura ipiniz.

Bestalde, dokumentazio gunetik irakurketa taldeak antolatzen dira, bertan gogoeta egiteko haren arduradunek proposatutako saiakera izaerako irakurketen inguruan.

Mediatekaren ordutegia: astelehenetik ostiralera 10:00etatik 14:00ak arte eta 15:00etatik 19:00ak arte. Sarean kontsultak egiteko [[www.arteleku.net](http://www.arteleku.net)].

## **ZEHAR**

Gaur egungo arte eta kultura alorreko aldizkaria da. Aldizkariaren helburua gogoetarako eta ariketa kritikoetarako oinarri egonkorrak sendotzea da.

Zehar urtean bitan argitaratzen den paperezko aldizkaria da. Bi edizio ditu, bata euskara-espainieraz eta bestea ingeles-espainieraz. Ale bakoitzean Artelekuren programazioan aurreikusitako jardueren inguruan eta haien bitartez lantzen da?). Hartara, argitalpenak zentroan jada fisikoki gertatu diren jardueri gogoetazko etapa bat gaineratzen die.

Formatu digitalean Zehar eztabaidagune etengabeaz elikatzen da. Era berean zentroko lan-ildoan bistaratzeko tresna ere bada. Baita lanabes erabilgarria ere zentroan lehenago izandako jarduerak elkarrekin erlazionatzeko.

## **DESACUERDOS**

### **Espainiar Estatuko arteaz, politikez eta esparru publikoaz**

**Desacuerdos** diskurtso akademikoa gainditzen duen kontra-eredu historiografiko bat altxatzeko borondatek sortzen da eta esparru publiko kultural kritiko bat berreraikitzeke zenbait oinarri ezartzen ditu.

*Desacuerdos* 5en lan metodologia berriak aurkezten dira aurreko ale argitaratuetan abiarazitako ikerketa lanetara jota.

Pedro G. Romerok koordinatzen du herri kulturaz eta kultura apalaren eta kultura garaiaren arteko harremanez diharduen ale hau.

Proiektu hau honako hauekin elkarlanean egin da: Centro José Guerrero- Diputación de Granada, Museo de Arte Contemporáneo de Barcelona- MACBA, Universidad Internacional de Andalucía-UNIA arteypensamiento.

## **www.arteleku.net**

Aurki argitaratuko da Artelekuren web orri berria. Diseinu berriak, software askean egindakoa, atal desberdinen funtzionaltasunak areagotzea ahalbidetzen du eta hobekuntza ere badakar edukien kudeaketari eta informaziorako sarbideari dagokienez.

Atal batzuek, hala nola **Arteleku TV**, hitzaldi, tailer eta kontzertuetako gonbidatuen dokumentazioa biltzen duena, edo **Artelekuko Bloga** bera, programazioan aztertutako gaien inguruko informazioa dakarrena, jardunean jarraituko dute 2009an.

## **HOTS! Paisai Soinu Irratia**

**www.hots-radio.info**

Lehen urte emankor eta interesgarri baten ondoren, bere esplorazio bideari jarraitzen dio, soinu paisaia kontzeptua zalantzan jartzen zenbait artista eta kolaboratzailek hilero egindako audio-dokumentalen bitartez. Azpimarratzea merezi du irrati honek online irratiaren nazioarteko zirkuituan izan duen harrera ezin hobea. Horren frogagarri dira beste irrati batzuek, hala nola CLUSTER ARTE SONORO, RADIO MONTEVIDEO, edo SENSXPERIMENT jaialdiak egindako elkarlan eta birremanaldiak.

## **AUDIOLAB BLOGA**

Koordinazioa: **Xabier Erkizia, Oier Iruretagoiena**

3 urte joan dira jada audiolabeko blogak bere ibilbideari ekin zionetik, eta honez gero 1.000tik gora dira web horretan izaera esperimentaleko musika praktiken inguruan egunero-egunero argitaratu diren berriak, mezuak eta gertakari zein jardueren kritikak. Gaur egun blog hau erreferentzia bat da Espainia alorrean soinu kontuei dagokienez, eta hilero 20.000 bisitalditik gora izaten dira. 2009an blogak diseinu eguneratua du, eta erredakzio-taldea handitu egin da erabiltzaileei zerbitzu hobea eskaini nahian.

## **MRB/AMM BLOG**

Koordinazioa: **Kolektiboa**

Weblog hau, hasieran Artelekun urtean bitan egiten diren MRB/AMM jardunaldientzako plataforma izaten zena eta Euskal Herriko soinu sortzaileen komunitate osoarentzako topagunea izaten dena, esperimentu txit interesgarri bilakatu da. Edozein pertsonak modu askean mezuak bidal ditzakeen blog ireki bat denez (nahiz AUDIOLABetik administratu), poesien, albisteen, kritiken eta kasu askotan sareko beste plataformetan leku egokia aurkitzen ez duten beste informazio batzuen artxibo informala bihurtu da. Saski-naski horretan benetako bitxiak aurki daitezke, blogean proposatutako hedapenari esker beste sare eta foro batzuetan banatu eta biderkatu direnak.

## **Copy Your Idols!**

Koordinazioa: **Miren Jaio, Oier Etxeberria**

Gonbidatuak: **John Oswald, Negativland, Nate Harrison, Tape Beatles, Pedro G. Romero, Karen Elliot, Chris Cutler....**

Argitalpen honek kopia kontzeptua aztertzen du arte sorkuntzaren esparruan, batez ere musikari lotuak egiten direnak remix, berjabetze eta berrinterpretatzeen testuinguruan. Antologia honetako testuak jada argitaratuak dira eta lizentziapekoak, baina osatzen duten korpusa oso interesgarria da praktika horietatik eratorritako arazoak aztertzeko egiletza kontzeptuei dagokienez. Azpimarra liteke testu hauek euskaraz eta espainieraz argitaratzen diren lehen aldia dela. Liburu hau 2007an Bilbon eta Donostian izenburu identikoarekin egin ziren jardunaldien emaitza da.

## **Zarata & Kapitalismoa**

Koordinazioa: **Mattin**

Gonbidatuak: **Eddie Prévost, Bruce Russell, Mathwe Hyland, Howard Steltzer.**

Espezifikoki okasiorako idatzitako testuak biltzen dira, musika esperimentalaren sorkuntza eta komertzializazioaren ondorio politiko, ekonomiko eta sozialak aztertzen dituztenak.

## **[UN]COMMON SOUNDS**

Koordinazioa: **Marta Font, Xabier Erkizia, Dimitris Kariofilis**

Gonbidatuak: **Achim Wollscheid, Asmus Tietchens, Marc Behrens, Alan Curtis....**

Dvd formatuan argitaratu da *[un]common sounds* dokumentala, Europa, Asia eta Amerikako zinema areto, proiektzio areto eta zinemaldietan aurkeztua izan ostean 2009an argitaratu dena ondoren banatzeko.